



## BULTZADA BERRIA LANBIDE HEZIKETA DUALARI

- **Eusko Jaurlaritzak lankidetzak-akordioa izenpetu du Lanbide Heziketa bultzatzen konprometituta dauden sei enpresarekin**

Iñigo Urkullu lehendakariak Lanbide Heziketa bultzatzen laguntzen ari diren sei euskal enpresaren ordezkariak hartu ditu gaur goizean Lehendakaritzan. Mondragon, Danobatgroup, Petronor, Uvesco, Tubacex eta ITP enpresen eta Confebask erakundearen arduradun nagusiak lehendakariarekin bildu dira. Bileran langileen prestakuntzari eta aurki lan-merkatuan sartuko diren Lanbide Heziketako ikasleen prestakuntzari dagokion egungo egoera aztertzeke aukera izan dute.

Bilera egin ondoren, baterako lanean aurrera egiteko funtsezko harremana finkatuko duen lankidetzak-akordioa izenpetu dute enpresek eta lehendakariak. Akordio horrek bultzada emango dio, bereziki, Lanbide Heziketa duala hartzen ari den garrantziari, batez ere etorkizuneko profesionalak teknologia aurreratuko inguruneetan eta ingurune konplexuetan profesionalki garatzeko prestatzeari begira. Horrez gain, gaur izenpetu duten akordioak beste alor garrantzitsu batzuk ere kontuan hartzen ditu, hala nola enpresa osatzen duten pertsonak eguneratzeko eta prestatzeko bidea errazteko eta malgutzeko premia, lan-esperientzia ezagutu edo aitortzeko aukera emango duten prestakuntza-ibilbide espezifikoek bitartez. Izenpetutako dokumentuak jasotzen du, halaber, zein garrantzitsua den konplexutasun handiagoko lan-inguruneetarako espezializazio zehatz batzuk eskuratzea.

Enpresa horien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko baterako lana funtsezkoa da dagoeneko gertatzen ari diren aldaketen abiadurari ziurtasunez aurre egin ahal izateko; behar den prestakuntza egokitu ahal izateko, pertsonak enplegagarritasun-premia berrietara molda daitezten; eta enpresek aukera izan dezaten aldaketa horien ondorioz sortu den lehiakortasun handiaren eskakizun berriei erantzuteko.

Ildo horretan, Mondragon, Danobatgroup, Petronor, Uvesco, Tubacex eta ITP enpresek erakutsi dute, Lanbide Heziketarekin lankidetzak estuan diharduten beste enpresa batzuek bezalaxe, gisa horretako ekintzak aurrera eramateko interesa eta konpromisoa dutela. Gaur izenpetu den akordioak finkatu egiten du behar den eta dagoeneko emaitza onak izaten ari den ereduarekiko konpromisoa.



Akordia izenpetu duten enpresak:

MONDRAGON	Iñigo Ucin Azcue	Presidentea
DANOBATGROUP	Pello Rodriguez	Zuzendari nagusia
PETRONOR	Emiliano López Atxurra	Presidentea
UVESCO	José Ramón Fdz. de Barrena Bermejo	Zuzendari nagusia
TUBACEX	Jesús Esmorís Esmorís	CEO (Chief Executive Officer)
ITP	Arantza Hallet Charro	Giza Baliabideen zuzendaria

Gasteizen, 2017ko martxoaren 27an